

Ore-Kanpaia

(Soraluze'ko oitura zar bat)

San Martin'dar Yon.

Badakigu kristautasuna zabaldu dan erri guzietan direla kanpaiak, baita ere doñu bereziz bazterrak ornitzen dituztela ; gurean, ordea, euskal-gogo nortasun baten jabe direla iñok ezin uka. Gure eleizetako kanpai otsak Euskalerrriaren biotz taupadak dirala esan genezake, bere arnasa otsa. Erriaren miñak, pozak eta negarrak daramazkite gure errietako kanpaiak : Egun-sentian, eguerdian, illuntzean, jai besperetan, iltzeko orduan... Denak bakoitzak bere aukerako doñu berezi batekin adierazten dizkigutela. Ez dakigu beren asmatzalle musikagillea nor zan, bañan denok ulertzen dugu beren doñuak esan nai diguna. Nola nai ere, musika barru-barrutik sentitzen zuenak asmatu zituan : Gure erriak noski.

Nornaik, lenengo aldiz entzun orduko igarriko lieke, beren konpasetatik, noiz dan jaia, noiz otoietara deitzen dioten edo beren ots kadenetatik errez igarriko dio norbaiten illetak direla, naiz aurra edo naiz nagusia, beren doñu artuak ba-dituzte.

Edertzale asko izan dira kanpai otsetatik beren eresgintzarako gaiak artu dituztenak, Wagner'ek *Parsifal*'en lenengo ta irugarren go ataletan ; Romantizismokoak « Aremaritzakua »kin amaika olerki daramazkien eresi eraingarri sortu zuen, eta batez ere Mussorgski, Rimski-Korsakov eta Jaroff musikagille klasiko rusoak. Euskaldunon artean, oien mallara eltzen ez-badira ere, izan ditugu oien antzera kanpaiak iragarritzat izan dituztenak, bañan guzietatik aundiena Escudero izan dugu bere *Illeta*'n. Oteiza Orio'ko irudigille ospetsuak lenengoz entzun zuanean biotz-ikaraz jun omen zitzaion, Artetxe idazleari, esanaz : « Gure erriaren illeta da, Euskalerrriaren bizi-eresia ; bai Joxe, sinistu zazu. Mundu guzian zabaldu bear litzake gure erriaren ezaun-

garri ». Izan ere, ori da Escudero'ren Illeta, Euskalerra'ren mu-
ñetatik sortutako ereserkia, bere kanpai ta guzi. Nik ere, lenengo
aldiz entzun nuanean orrelakoxe biotz-ikara eramán nun ; Bil-
bo'n zan, Azkue'ren omenez egindako jaian. Patxi Escudero'ren
musikak biotzeraño sakondu zidan Lizardi'ren poema, neri ere
barruak kementsu esaten zidan : « Biotzean min dut, min etsia,
negar ixilla darion miña ».

Bañan, neure gaitik atera gabe noan Soraluze'ko « Ore-kan-
paia »ren berri ematera. Soraluzen ere bada Escudero'ren do-
ñuan bezelako illeta-kanpai samingarria. Bañan gaur emen dakar-
ten au ezda orrelakoa, ezda ain mingarria. Euskalerra'ren kon-
daira zarretan lañoz estalirik dauden izaera oroigarrien zera da-
karkigu burura. Ekaitz-kanpaia dugu berau, orain toki gutxitan
egiten bada ere, lenago asko zabaldua zan, eta gure Soraluze'n
urtietan zear jatorri gordetzen jakin dute.

Orrileko Santa Kurutz egunetik Irailleko Santa Kurutz'era,
gure auzoko Soraluze edo Plazentzia, oitura zar goragarri au,
ekaitza datorrenean aitzen emateko dute ; « Ore - kanpaia »
deitzen diote. Eta gañera oitura orri eusteko, inguruetako baser-
riak urteko onenbesteko bat izendatua dute gauzaz ordaintzeko.

Orrilaren asieran eta Irailaren bukaeran, Santa Kurutz egun
bietan, eguerdiko amabi-amabietan, eleiz-nagusiko kanpaiak jo-
ta-ke jardutzen dira lau aize-aldietara beren durunda otsak za-
balduaz. Aintzina-aintzinatik, oitura dan bezela, Arteta baserri-
ko nagusia da San Andres basilizaren zaintzalle eta bere gain
dago ekaitza urreratzen Soraluze'ko erriari aitzen ematea.

San Andres basilizatxo ori, muño baten gañean dago erri
langillea mendez-mende duelarik. Odei beltzen batzuek erri-
runtz datozenean, euritza gogor edo txingorrak dakartzken iduriz,
Arteta'koak bere buruz egualdiaren iritzi bat egiten du, ekaitzak
soroetan egin litezken kalteak neurtu ere bai, gutxi gora-bera
ziur erabagitzeko aitzen eman ala ez. Baiezkoa bada, kanpaiak

jotzen azaltzen du doñu bizkor batekin, eta soraluzear selebriak onela bataiatu dute : *An, an, an...* Eta orduan parrokiako kanpai aundia asten da, bikoitza egiñaz, doñu poliki baña draungada sakonakin, galdezka : *Nun-da, nun-da? nun-da ?...* Esaten dute-nez, orain urte batzuek, berengana alkartzen omen zan mojen komentokoa, jotze azkarrago batekin erantzunaz : *Tella-tuan, tella-tuan, tella-tuan,....* Aintzinago baten, bañan berakin ez dira oroitzen gaur bizi diranetatik zarrenak ere ; irugarrenaren ondoren San Marzial'goak ekitzen omen zion. Gure egun auetan San Andres baselizakoak eta erriko eleiz-nagusikoak bakarrik jarraitzen diote odei-kanpa jotzeko oitura zar orri.

Beren deira, baserritarrak gorde bearrez etxeratzen dira, abereak ukulloratuaz ; aurrak ere jolasak utzita etxeko txokoan gordeko dira. Ta gero, ekaitza txarreruntz ba-dijoa, tximiniatik zintzilik dagoan kurutze zarraren ondoan laster ixotuko dute kandela bat, soroak eta baratzak gordetzeko Jauna'ri otoitz egiñaz. Etxealdetik urrun xamar dabilten ikazgin ta baserritar gizon mardulak, kanpai otsa entzun orduko, begiak zeruruntz jasoko dituzte odei beltzeri begira, zer dakarzkiten igarri naian, txarreakoa irizten ba-zaizkie, beren tresnak artuta urren dagoan txabolaruntz juango dira. Beste orrenbeste egingo du mendian dabilen artzaiak, bere artaldea eramanez. Eta, berriz, auz-apaizak eliz-liburua eskuetan duelarik, leio inguruan Jaunari otoizka asiko dira. Une artan, baizter guziak ixiltzen direlarik trumoi otsak asten dira zarataka, egualdia geroago ta illunago jartzeko, eguna iya gau biurtzeraño, eta oñaztarriak beren suzko-printzekin ukulloko abereak bildurtuta marruzka batean ipintzeraño. Gero odei kanpaiak ixiltzen dira eta ekaitza ere juango da poliki-poliki urrunduz, zaparrada atertu, nekazariak beren laneri jarraitzeko.

Ori da ba, Soraluze'ko, « Ore-kanpaia » deitzen dioten oitura goragarria. Ikusten dan lez, udaran bakarrik egiten dute ; beraz, neguan ez baita izaten ekaitzaren bildurrik soroetan zer galdurik ez-dagoelako. Eta, gaur Plazentzia, batez ere, ola-gizonen erri bat bada ere, oraindik gordetzen du aintzinako oitura au, bere nekazari jatorria agiri-agirian jartzen duena.

Izan ere, iñoiz munduan izan badira oitura askodun erriak, gure Euskalerra au dugu, zalantza bage, oitureri lotuta bizi izan dan bat. Gure egun auetan modernismo egarritsu onek zurrut egin bear ditu geienok, apurka-apurka baztertuaz, lazgarria bada ere bizi legeak ezkatzen du, ukatu ezin genezaken aurrerapenak, eta ongi ere ongi izango litzake oitura guziok zeatz jasotzea, oraindik bizi direnak beintzat. Orrela, aintzinako Grezia'k bezela, gure kultura lorratza lagako genuke geroagoko munduarentzat, « edo - ta ats emaiogun, ontan iraun dezan », etsipenik artu gabe.

Onetzaz, Barandiaran jauna dugu geien arduratu dana eta bere « Eusko - Folklore »ko argitalpenetan ari zaigu azaltzen.

...Irakurle : iñoiz ere ez-bazera oartu gure errietako kanpaimusika ederrekin, entzun zazu arren, ala ere musika-zale bazera ; ziur nago atsegingarri izango zaizuna. Gure erriaren biotz taupadak dira, bere arnasa otsa... Ze izkuntza maitekor duen kanpaiak, pozgarri edo itun, nausiki edo jolaskor... Bai, gure Euskalerra'ko kanpaiak.

